

belkike

2004ko URTARRILA,
118. ZENB. DOHAINIK



Hemen duzue HITZA



DUNAK
zaindu beharreko
altxorra

URTE BERRI ON!!
Ohi baino beranduxea-
go, baina hemen dauka-
zu 2004ko aurreneko
Baleike. Iazkoekin alde-
ratuta ez dauka misterio
handirik. Urte bete za-
harragoa izatea, besterik
ez. Beno, badauka berezitasunik.
Aurten beteko dira 10 urte Baleike
argitaratzen hasi ginenetik. Alde
horretatik, berezia izango da urte hau
guretzat.



Baina, gatozen urtarrilekora. Badu
nondik heldu, alajaina!! *Ze berri* atale-
an herriko kontuak izango dituzu:
Geretxuetako babes ofizialeko etxe-
ak, Balentziaga Ontziolako langile-
en egoera, anbulatorio berria egiteko
asmoak... Ez zara aspertuko ez, herri-
ko albisteekin.

Sagardo garaia hasi berria dela-eta,
jardunian aritzera Astigarraga aldera
joan gara. Astigarragara? Bai, bai harai-



no. Zumaian urte askoan bizi den
Mikel Lizeagari bisita egin diogu, eta
berak kontatuko dizkigu sagardoarekin
lotura duten gauza asko.

Sagardo asko edanez gero, hurrengo
egunean kaskarreko minaz gain, egarri
galanta izaten dugu. Ura edan ohi
dugu. *Ur haunditan* sartzea txarra ez
horrelakoetan. Gu sagardorik edan
gabe sartu gara, aizu. Santioko proiektu-
a eta proiektuari jarritako alegazio-
en berri izango duzu.

Olarro zopan, besteak beste, bi
zumaian handiren kontuak aurkituko
dituzu. Bat emakumea, Julene
Azpeitia. Bestea gizonezkoa, Aita
Mari.

Izerdi patsetan Imanol Lopez zesta
puntan aritzen den pilotaria izango

duzu zain. Ez da egun asko profesio-
naletako lehen txapelketa irabazi
duela.

Labur-labur azalduta, hauxe duzu
urtarrileko Baleike. Oraingoan, gai-
nera, ondo lagunduta dator gure aldiz-
karia, Urola-Kostako Hitzaren 0 zen-
bakiarekin batera. Euskarazko prent-
sak beste aurrerapauso bat eman
behar du gure bailaran. Otsailaren
amaiera aldetik aurrera
egunero izango duzu
Hitza irakurtzeko
a u k e r a .

Euskarak
b e h a r
zaitu, ez
ahaztu!!



HERRI ALDIZKARIA

Juan Belmonte, 29 behea
tel.: 943 86 15 45
faxa: 943 86 17 42
email:
baleike@topagunea.com

Argitaratzailea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

Administrazio batzordea

Esther Etxeberria
Xabier Azkue

Erredakzio batzordea

Ibon Manterola
Eneko Dorronsoro
Itxaso Ibarra

Aitor Manterola
Gurenda Serrano

Koordinatzailea

Aitor Manterola
Kazetariak
Eneko Dorronsoro
Ibon Manterola
Itxaso Ibarra
Aitor Manterola
Gurenda Serrano

Kolaboratzaileak
Miriam Romatet,
Dani Carballo, Belen
Golmaio, Ixiar eta Estitxu
Eizagirre, Karmelo Arroiabe,
Gorka Ormazuri,

Xabier Aizpurua, Ibon
Aizpurua
Izaga Garzia,
Beñat Fernandez de
Arroyabe,
Ihintz Linazisoro, Egoitz
Lizaso, Garikoitz Telleria,
Natur Taldea, Ander
Hormazuri, Juan Luis
Romatet

Diseinua eta maketazioa
Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa
Baleike

Publizitatea
943 86 15 45 tel. (Esther)

Inprimategia

Antza
Inprimategia
(Lasarte-Oria)

Tirada

1.000 ale
Lege gordailua
SS-405/94
ISSN
1136-8594

Argazkilaria:

Eva Franco

Baleikek ez du bere gain
hartzen aldizkarian adierazitako
esanen eta iritzien
erantzukizunik.

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaia Udalak



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



kutxa

gizarte ekintza



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA

Sua eten! Su-etena orain!

EUSKAL HERRIAN bizi dugun une larri eta itxaropen-tsu honetan, mezu bat helarazi nahiko nieke ETako kideei. Izan ere, hainbeste proposamenen artean, ETak bere fitxak mugitu beharko lituzke, eta ahal balitz, behin betirako:

Ez gehiago hil, utzi hiltzeari!

Eten sua, Sua eten,

Eten atentatuak, mehatxuak eten.

Euskal Herriak eskertuko dizue,

Heriotzaren mehatxua soinean daramatenek bezalaxe.

Agian Alderdi Popularreko estrategia batzuek ez, agian beste liskarzale batzuek ere ez.

Haiek urduri jarriko dira, zuen laguntza primeran baita-torkie.

Baina beste guztiok eskertuko dizuegu.

Euskal herritar eta euskaltzaleok, abertzale eta ezkertiarrok, Ezker Abertzaleak berak ere eskertuko dizue,

Gero eta zailtasun handiagoak dituzten militanteek bezalaxe,

preso politikoen senideek bezalaxe,

mota guztietako suak etenda ikusteko premia larria baitute.

ETako kide zaretenok, Herri honek ez du zuen bidea onartzen

eta bizkarra eman dizue jadanik.

Kartzelako zulo beltzetan usteltzen

edo bide bazterrean hilda uztea nahi ez baduzue,

eten sua, sua eten!



Joseba Ossa



Piazoleta de los Fueros - Bajo
Tel. (943) 86 14 74
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

Garretxe
Rafael Insausti Elgoibar



Erribera kalea

Tel. 943 861523



Amaiako Plaza
Tel. 943 14 31 35

- Depilaketa (beroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a



Arantza Aramendi
Harategi kalea, 15 behea
943 86 22 65 - 609 46 56 37



Txomin Agirre kaia, 6
Tel./Faxa: 943-143057
Z U M A I A


Inkomunikazioa

BESTEAK GELA batean sartzeko gonbitea egin dio. Kanpoan dagoenak eskaintza onartu, eta barrurantz doaz biak. Atea itxi ondoren, mahai baten inguruan eseri dira. Aurrez aurre daude. Elkar agurtu ondoren, gonbidatua hizketan hasi da. Azaldu beharrekoa ondo azaltzen ari da. Ondo ikasita eraman du kontatu beharrekoa. Bestea aurrean dauka, itxuraz adi-adi entzuten ari zaio. Minutuak aurrera doaz, eta oraindik gonbidatua ari da hizketan. Besteak txintik ere ez. Halako batean, entzulea jaiki egin da. Gonbidatuari ezertxo ere esan gabe, gela bazterrean dagoen leihorantz doa. Gonbidatuak ez daki zer egin: isildu edo hizketan jarraitu. Isiltzea erabaki du, bestea isiluneaz jabetu eta mahaira itzuliko delakoan. Biak daude orain isilik: hizketan ari zena, eta lehendik ere isilik zegoena. Luzea egiten ari zaio tarte gonbidatuari.

Besteak leihuan jarraitzen duela ikusita, hizketan jarraitzea erabaki du. Hasi da berriro ere hitz egiten. Aurrean behar lukeena leihotik begira egon arren, hizketan ari da. Handik pixkatera, leihoa laga eta mahaira itzuli da bestea. Hasierako egoeran daude biak. Aurrez aurre, eta bat hizketan eta bestea isilik. Hamar minutura gutxi gorabehera, gonbidatuak bukatu du berea. Besteak isilik segitzen du. Mahai ingurutik jaiki eta aterantz doaz. Elkar agurtu ondoren, gonbidatuak alde egin du. Bestea gelan gelditu da.



Aitor Manterola



SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK

Basadi Auzategia, 10 behea
Tel. 943 862051



Auto-konponketak
ELKAR

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



Urte berri berri, zer dakartzu berri?



Estitxu Eizagirre

Hala da esaera. 2004ko agenda zuri ageri zaigu oraindik. Idatzi gabe ere, bakoitzak bere egunak apuntatuta izango ditu, gogoan:

San Pedroak, Kontxako estropaden eguna, urtebetetzea... Baina gainerakoa, pista libre! Etorriko diren egunei begira jartzean, igartzen da bakoitzaren kopeta: batzuen beti ilun. Izan ere, nork esango zuen 2003an hainbeste kalamidade gertatuko (edo gertaraziko) zirenik? Nork pentsatu behar zuen Prestigek marea beltza zabalduko zuenik, edo Egunkaria itxi behar zutenik? Orduan, zer ez ote dugu 2004an ikusiko? Besteren batek kopeta argi izango du, 2003an Erreala bigarren geratu zela gogoratuta, edo Maiak txapelketan botatuko bertsoen doinu berria tarareatuz, edo urte honetan egindako gauzak gogoan. Orduan, zer ez ote dugu 2004an lortuko?

Agendarekin bezain garrantzitsua dela eguneroko bat gogorarazi diot Olentzerori. Agendan markatzen dira planak, egin beharrak. Baina egunerokoan biltzen da gertatutakoa. Bien liburuxken arteko aldea, nahi eta ezinena da. Baina txiriparena ere bai. Eta bizitzako kasualitateek eta sorpresek ere, agendan espero ez genituenek, merezi dute idaztea.

Xabi, hasi al zara agenda betetzen?

Zaharrak berri ez behintzat

Aitor Manterola



Barkatu politta, baina Xabi galdu egin da. Ez dakigu non, baina galdu. Portzierto, ez zen zure ahizparekin norabaitera joango, ezta? Agian, agendan egun bat aukeratuta zeukaten alde egiteko, eta gu konturatu ere ez. Hau da mundua hau!! Orain egunerokoan idatziko dute nola halako egunez, halako orduan, eta halako tokitik, halako batean alde egin zuten. Agenda eta egunerokoa, biak izatearen bentajak ditun horiek.

Galerekin segita, hilabete honetako trinidadia aipatu behar. Gauza asko galduta hasi du urtea. Izaera zeharo aldatu zaio, eta hirukoa izan beharrean bikoa da oraingoan. Galera da baita ere, Xabi eta Ixiarren tokian ni agertzea. Hau da paraderua!! Baina lasai. Agendan idatzita daukat otsailekoak bere betiko izaera berreskuratuko duela. Letra gorriz eta larriz dago idatzia. Otsailean trinidadia izango da, eta ez bikoa. Ni ere ez naiz agertuko, betikoak baizik.

2003an sekulakoak pasa ziren (zitzaizkigun). 2004an ez al dira (zaizkigu) okerragoak pasako? Gu gaizki hasi gara. Jaungoikoa haserretuko zaigu trinidad e santuaren izaera hausteagatik. Hark ere agendan gure izenak idatzita izango ditu, honezkero. Hau da beldurra hau!!

Batzarra eskatu dute Geretxueta kooperatibako kideek

Zuzendaritza Kontseiluak hartutako zenbait erabakiren berri zehatza izan nahi dute

Etxebizitzaren zozketa egiteko Zuzendaritza Kontseiluak erabakitako prozedura izan da kooperatibako kide batzuen harridura sortu duena. Etxebizitzak bi eta hiru gelakoak dira, eta Kontseiluak erabaki du hiru pertsona edo gehiago direnek lehen-tasuna izatea hiru gelako etxebizitzaren zozketan. Bilera eskaera egin dutenek Kontseiluak erabaki hori nola eta zergatik hartu duten jakin nahi dute.

Horrekin lotuta, bada kezka sortu duen beste kontu bat ere. Etxebizitza bakoitzean zenbat pertsona bizikot den datua batzuek puztu eta handitu egin dutela diote bilera eskatu duten kooperatibako kideek. Horregatik, eta arazo hori saihesteko hauxe eskatzen dute: Eusko Jaurlaritzak datu horiek egiaztatu ditzala etxebizitzaren zozketa egin baino lehen.

Bilera eskaera egiteko behar ziren sinadura kopurua bilduta, Zumaia



Lantzen-i eta Udalarari bidali dizkiete bai eskaera, baita azalpenak behar dituzten gaien zerrenda ere. Batzarra noiz egingo zain dira orain kooperatibako kideak.

Zozketa atzeratu liteke

Urtarrilaren 31 da berez zozketa egiteko eguna. Hala ere, atzeratu egingo da ziurrenik. Bilera eskatu dutenen ustez atzeratzea litzateke egokiena.

amaiako plaza, 2
Tel. 943 143278

Maite
ileapaindegia

ekin INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
/elektrizitatea, s.l.
ELEKTRIZITATEA, S.L.
Erribera kalea 18 Behe TB/fax: 943 143097
20.750 Zumaia ekin@ekinl.com
Instalazioak/banatzaila ofiziala

CANAL+ Vía CANAL DIGITAL

Televisión Movistar

Televisión Movistar

ert informática

tresna digital
internet
scanner

Eusebio Gurrutxaga, 6
Tel. 943 14 33 95

DALAC

Juano eta Abel Yeregi: "Nagusiek esan ziguten pare bat ontzi egiteko kontratuak negoziatzen ari zirela, eta alde horretatik nahiko lasai gaude"

Balentziaga Ontziolan LABeko eta ELAko ordezkariak dira Juano eta Abel. Azken ontzia egin zutenetik ez dute lanik izan. Orain oporretan daude, baina itxaropena izateko datuak dituzte.

Aurrez aurre jarrita, eta beraiekin solasean hasita, ez du ematen kezkatuta daudenik. Horrelako egoera batean, ez da gutxi.

Zein egoeretan zaudete orain?

Juano: Oporretan gaude. Hilaren 26ra arte jai daukagu, oporrak aurreratu egin dizkigutelako. Orduan ikusi beharko da zer gertatzen den.

Lanera itzultakoan betiko lanean ez zarete ariko, ordea.

Abel Yeregi: Hori da, ikastaroak jasotzen hasiko gara lanean. Ontzi berriak egiteko kontratua sinatu bitartean horretan ariko gara.

Egoera ona ez bada ere, itxaropena mantentzeko zenbait datu badituzue.

Abel: Nagusiek esan ziguten pare bat ontzi egiteko kontratuak negoziatzen ari zirela, eta alde horretatik nahiko lasai gaude.

"Enplegu erregulaziorik ez dute aurkeztu, eta hori seinale ona da"

Juano: Inbertsio batzuk egiten ari dira lantegian. Garabi handia txorreatzen ibili dira, makina berri bat ere erosita daukate, eta pabiloi berria ere egin zuten. Horretaz gain, enplegu erregulaziorik ez dute aurkeztu, eta hori seinale ona da.

Abel: Gainera, erregulazioa lanean hasi baino hilabete bat lehenago aurkeztu behar izaten da, eta urtarilaren 26an hasten garela kontuan izanda, ez du ematen enplegu erre-

gulazioa egingo dutenik.

Lan berriak egiteko kontratuen sinadura nahiko segurua dela esan nahi al du horrek?


Juano: Nik baietz pentsatzen dut, bestela ez zuten halako dirutza gastatuko. Nire ustez, nagusiak zain daude kontratua noiz sinatuko. Hori eginda gero, bat ere oporrik gabe dena segidan lan egitea nahiko dute.

Abel: Guri esan zigunez, sinadura bakarrik falta zen bi ontzi horiek Zumaian egiteko.

Lana izanda ere, orain zaudeten langile guztientzat adina lana izango al zen?

Juano: Bai, eta gainera langile gehiago beharko lirateke. Lana sartzen den bakoitzean jende gutxi egoten gara. Nagusiak nahi du ehun langile kontratu finkoarekin egotea.

Abel: Orain laurogeita bi gaude kontratuarekin, eta horietatik hirurogeita zazpi kontratu finkoarekin.



- * Eguneroko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitak eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 943 862517



Taberna - Zumaia
Tel. 943 143379



TXOMIN AGIRRE, z/g
TEL: 943 885369

Kafetegia



Egoera zertan den jakiteko nola-ko harremanak dituzue enpresarekin?

Juano: Gu joaten gara lantegira gauzak galdetzeraz. Beraiek ez dira guregana etortzen, eta 26an, lanean hasten garenean zerbait esango digutela uste dut.

Langileok nola bizi duzue horrelako egoera gogorra?

Abel: Orain oporretan gaude, baina kezkatuta gaude. Beti buruan daukagu gure egoera zein den, eta beldurra ere ematen du. Beno, beldurra baino gehiago, kezka.

Juano: Egia da egoera ez dela ona, baina ni Balentziagan nabilenetik tarteka-tarteka bizi izan ditugu horrelakoak. Okerragoak esango nuke nik. Orain urte batzuk hiru hilabete kobratu gabe egon ginen, Orain, sikiera, hilero kobratzen dugu. Alde horretatik lasai gaude. Kezkatzekoa litzateke enplegu erregulazioa sartuko balute, baina

Abelek lehen esan duen bezala, ez du ematen hori egingo dutenik.

“Orain urte batzuk hiru hilabete kobratu gabe egon ginen, Orain, sikiera...”

Ontziola asko zaudete egoera txarrean. Zergatik?

Abel: Ez da gure kasua bakarrik. Hor daude Cadizekoa eta Sevillakoa, eta hemen inguruan Bilbokoa. Zergatik gertatzen den? Tarteka-tarteka izaten den zerbait da. Gutxi gorabehera, hamar urtetik behin oraingoa bezalako egoerak izaten ditugu.

Juano: Krisiak dira, eta tartean-tartean izaten ditugu horrelakoak. Oraingoaren arrazoietakoa bat

Europak armadoreei kendutako diru laguntzak izan daitezke. Lehen ontzi berriak egiteko Europak % 15 ematen zien armadoreei, baina orain laguntza hori kendu egin diete. Hortaz, armadoreak ontzia egiten % 115 bere patrikatik jarri behar du. Ontziola asko laguntza horiek berriz emateko borrokan ari dira Bruselan, eta ikusiko dugu.

Asiako konpetentzia ere aipatzen dute ontziolen krisia azaltzeko.

Juano: Bai, baina Balentziagari ez dio asko eragiten. Asiarren konpetentziak kalte gehiago egiten die ontziola handiei. Gure konpetentzia Europan bertan dago. Baita Kantabrikoan ere: Asturiasen, Galizian...

Abel: Bizkaiko ontziola txikiak ere gure konpetentzia dira: Murueta, Zamakola...

Juano: Beno, Murueta Balentziagako zati baten jabe ere bada, eta ez zaio komeni gu krisian egotea.

Jon Maia: "Oraindik ez dut onena eman"

GIPUZKOAKO Txapelketako finalean laugarren izan zen bertsolari zumaia-rra, eta horrek zapore gazi-gozoarekin laga du.

Mojen arropa jantzita, kartzelero txantajista kirolzalearena egin behar izan zuen, besteak beste, finalean. Gurera betiko Jon Maia, egunerokoa etorri zaigu.

Beno Jon, laugarren postuan sailkatuta, nola neurtzen duzu finalean egingakoa?

Jon Maia: Horrelakoetan postua ez da garrantzitsua. Norberak daukan guztia ematea gehiago baloratzen da. Laugarren postua gazi-gozoa da, ez goian eta ez behean. Bestela, saio txukuna egin nuela uste dut, nahiz eta ariketaz ariketa erabat lehertzea ez lortu. Bukaeran bakarrik, kartzelako lanean lehertu nintzen, eta horrekin gustura gelditzeko modua izan nuen.

Euskal Herriko Txapelketan ere laugarren izan zinen. Ba al dago alderik bi laugarren postu horien artean?

Jon: Hura Euskal Herrikoa zen, eta hau Gipuzkoakoa. Hala ere, orduan ez nintzen gustura, jendeak gogoratzeke moduko bertsorik ez nuelako kantatu. Oraingoan, berriz bertso on batzuk laga ditut, eta horrek asko laguntzen du norbera gustura izateko orduan.

Zer falta izan zaizu finalean goraxeago izateko?

Jon: Gaiekin zorte on pixkat falta izan zitzaidan. Sailkapenean goraxeago izateko, saioko momenturen batean haitza alde izatea beharrezkoa da, eta nik gaietan oso zorte txarra izan nuen. Beti kontrako papera eta itsusia egin beharra egokitu zitzaidan: kartzelero txantajista, mojaren trajea, etab. Jendeak hori ez du ikusten, baina bertsolariak sentitzen du gaiak ez dituela gustuko.

Bi finalisten izenak ematerako garaian, Jon entzun zenuenean zu zinela pentsatu al zenuen?

Jon: Bai, burutik pasa zitzaidan, baina beste Jon zen, Jon Martin.

Txapelketaren egituragatik, bi saiotan bakarrik aritu zara, final aurrekoan eta finalean. Horrek kalte egin al dizu?

Jon: Oso motza egin zait. Final aurrekorako ondo mentalizatu nintzen, baina behin finalera sailkatuta erlaxatu egin nintzen, eta astebete bakarrik nuen finalaren aurretik. Aizkora zorrozteko denbora gutxi izan dut. Bestalde, aurten oso gutxi prestatu naiz. Aurrekoetan gehiago prestatuta egoteagatik blokeatzeko arriskua izan dut, gauza gehiegi egin nahigatik edo, eta aurten prestakuntza lasaigoa egin dut.



"Gaiekin zorte on pixkat falta izan zitzaidan"

Txapelketa bukatuta bi izan dira, batez ere, jendearen ahotan ibili diren hausnarketak: belaunaldi berria eta Maialen. Zein da Txapelketari buruzko zure iritzia?

Jon: Maialenena ez da ezustekoa izan. Oso segurua da, oso bertsolaria, eta finalean ederki erakutsi zuen hori. Belaunaldi berriari dagokionez, ez nuke esango hainbesterako denik. Hau da, ez da Euskal Herri osoan gertatzen ari den kontua, Gipuzkoara mugatuta dagoena, baizik. Egia da gazte hauek indartsu, gogoz eta oso ondo prestatuta datozela, eta bat edo bestek lortuko du gurekin saioetan ibiltzea. Baina belaunaldi berria dela ez nuke esango, oraindik Maialen, Mendiluze, Irazu eta ni neu, esaterako, gazteak garelako. Gainera, badakit oraindik ez dudala onena eman.

Bestalde, nabarmendu nahi dut Zumaia-rik ehun pertsona inguru joan zirela finalera. Herriko bertsozaletasuna bizi-bizirik dagoela esan nahi du horrek.



TV-VIDEO-HIFI
ELEKTROGAILUAK
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK
ERRIBERA, 8 943 861694



Basadi Auzategia, 9-A 2-B




BASUSTA
ERRETEGIA

Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073

Bertsoaren magia nonahi

Sorozabal eta Mendiluzerekin tabernaz taberna; Zumaiaiko, Zarauzko eta Hendaiaiko bertso eskoletakoekin Artadin, Jon Martin eta Alain Urrutiak lagunduta; Gorka Iribar eta Maddi Gallastegiren bertsopaper bikainak

Aita Mari aretoan, bertsolari gazte artista batzuen aurretik; eta sagardotegien denboraldia hasteko ere bertsolariak, noski: Elortza eta Jon Maia, kupe-lak sagardoz hustu eta bertsoz betetzeko.



Klarinete Maratoiaren bigarren ekitaldi arrakastatsua

Emanaldia, kontzertua, erakusketa eta eskola izan ziren Maratoiaren ardatzak

2002an ekin zion Zumaiko Udal Musika Bandak ekimen honi. Iazkoa bigarrena izan zen, eta lehenengoak adinako arrakasta izan zuen. Lau ardatzetan banatutako Maratoia izan zen. Bakarkako eta taldekako eskolak jasotzeko aukera izan zen. Eskolak bitan bereizita zeuden: batetik, musika munduan titulu ofiziala dutenei eta ikasten ari direnei zuzendutakoak; eta bestetik, Musika Eskolako ikasleei eskainitakoak.

Bigarren ardatza Maratoiko parte hartzaile guztiek emandako kontzertua izan zen. Hirurogeita hamabost musikari, eta beste horrenbeste klarinete. Gozatu ederra hartu zuten kontzertua entzun zutenek.

Erakusketa bat ere izan zuen aurtengo ekitaldiak. Musika munduko denda batek utzita, era guztietako klarineteak eta musika tresna horren osagarriak ikusi eta ezagutzeko aukera izan zen Udal Musika Bandaren egoitzan.

Laugarren ardatza, eta iazko ekitaldiarekiko berrikuntza, Carlos Casado klarinete jotzaileak, Bego Blanco ipuin kontalari zumaierak eta biolontxelistak batek eskainitako emanaldi berezia izan zen. Forondan bildutako umeek adi-adi



jarraitu zuten hiruren artean osatutako lan ederra.

Helburuak beteta, etorkizunean pentsatzen

Maratoiarekin hainbat gauza lortzeko asmoa izaten dute antolatzaileek. Besteak beste, klarinetearen aukera aberatsa eta klarinetearen historia ezagutaraztea. Baita, nola ez, beste herrietako Musika Eskolakoeekin harremanak sendotzea. Horretarako aukera behintzat izan zen, Deba, Azpeitia, Azkoitia,

Urretxu, Zumarraga, Legazpi, Getaria, Aizarnazabal, Itziar, Andoain eta Donostiako ikasleak Zumaian bildu zirelako.

Arrakastak arrakasta, etorkizunean pentsatzen ari dira herriko musikariak. Klarineteari eskainitako Maratoiaz gain, saxoaren ingurukoa antolatzeko asmoa badute. Eta Klarinete Maratoiarri dagokionez, berrikuntza batzuk ere badituzte pentsatuta. Beti ere, herritarren artean musika zaletasuna eta kultura zabaltzeko helburuarekin.



**ALBAITARITZA
KLINIKA**

MIREN SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
INAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIAK-

astegunetan: 16:30-20:00
larunbatetan: 10:30-13:30

Basadi, 7 behea

Tel. 943143310

Tel. mugikorra: 608- 775508

Larrialdiak
- 24 ordu
- zeure etxean

Karmengo Ama, 14
E-20749 **Arroa** (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskalnet.net



Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L.



Xabier Azkuerentzat Julene Azpeitia Lehiaketako zumaiaarren ipuin onenaren saria

Lehenengo saria Alberto Ladronentzat izan da, eta bigarrena Zigor Etxanizentzat

"Ez kapar, ez bakar" du izenburutzat Xabier Azkueren ipuinak. Funtzionario izateko oposaketak prestatzen ari den gazte baten asteburuko atsedendia kontatzen du. Arantxa Urretabizkaiak, Pako Aristik, Martin Etxeberriak eta Joxean Agirrek osatutako epaimahaiaren arabera, generoaren arau guztiak hautsiz, herriko izen, leku eta gertakari ezagunen argazki umoretsua osatu du Xabierrek.

Bigarren aldia da zumaiaarren ipuin onenaren saria irabazten duena, eta aurtengoan 1.000 euro jasoko ditu.

Lehenengo saria Alberto Ladronen "Kiklos" ipuinarentzat izan da. Izen bereko dendan lan egiten duen neska-rekin maitemindu den eskizofreniko baten mundu ikuskera itxia eta obsesi-

boa erakusten du, modu esajeratu eta bortitzean. Era horretan agerian uzten ditu protagonistak bere desioak eta errealitatea bereizteko dituen zailtasunak. 3.000 euroko saria dagokio Alberto Ladroni.

Bigarren saria Zigor Etxanizek irabazi du, "Bi lurperatze" ipuinarekin. Heriotza bana eragin duten emakumezko eta gizonezkoaren arteko harremana da ipuineko ardatza. Bi planotan garatzen du istorioa, detektibearen bulegoan eta hilerrian gauzatzen diren bi eszena tonu egoki, orekatu eta landuan gauzatuta. Zigor Etxanizek 1.500 euro poltsikoratuko ditu bigarren saria irabazita.

Gustura dira Udalekoak aurtengo ekitaldiarekin. Guztira hogeita hiru ipuin aurkeztu dira lehiaketara, horietako lau zumaiaarrenak. 16.a bukatuta 17.ean pentsatzeko garaia da.



OSASUN-ZIURTAGIRIAK GIDATZEKO ETA EHIZARAKO BAIMENAK LORTZEKO

Ordutegia: astelehenetik ostegunera, 18:00etatik 20:00etara

Aurretik ez dago txanda eskatu beharrik. Eraman beharrekoa: gidatzeko baimena eta argazki bat

Ipar Kalea 17, Behea, (Pagoeta Tabernaren ondoan) ZARAUTZ

Telefono zenbakia: 686 954 299



Kantauri Plaza 6, behea tel. 943 117 406



Alai auzategia, 2

Tel. 943 14 33 24



- Material guztietako leihoak:
PVC, poliuretano, aluminio eta egurrezkoak
- Armairu enpotratuak
- Tarima, ate eta era guztietako pertsianak
- Lanen zuzendaritza

Bezeroak gustura uztea da gure helburua

Itzurrun zuhaitzbidea, 2 943861565 - 943143446

EGOKI



Erloju
eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan

Udalak Eusko Jaurlaritzari utzi dizkio anbulatorio berria egiteko lurrak

Urria bukaerako Udal Batzak aho batez onartutako erabakia izan zen

2002ko udako kontuak aipatzetik hasia izango da onena. Orduan, Eusko Jaurlaritzak ambulatorio zaharra handitzeko proposamena egin zuen. Udalak ezezkia erantzun zion, Gernika pasealekua txikituko zuela argudiatuta. Beste leku bat bilatzekotan gelditu zen Udala. Aurkitu zuen lekua: kiroldegia eta Basadiko azken etxeen arteko eremua, festetan barraketako kamioiak uzten

dituzten lekua, hain zuzen.

Eusko Jaurlaritzari lur horiek uzteko erabakia Udal Batzatik pasatzea bakarrik falta zen. Hori urria bukatu izan zen, eta aho batez onartu zuten batzarrean izan ziren hamabi zinegotziek. Orain, erabakiari alegazioak eta iradokizunak aurkezteko epea irekita dago. Alegaziorik balego, Udal Batzak erabakiko luke alegazio horiek onartu edo ez. Ez balego bat bera ere, lurrak uzteko erabakia behin betikoa izango litzateke.

San Juan Egoitza berritzeko lehiaketa deialdia irekita

Bestalde, zaharren egoitza izenaz bataiatuta daukagun San Juan Egoitza berritu eta egokitu nahi du Udalak. Horretarako lehiaketa deialdia zabaldu du. Interesa dutenek, iragarkia Gipuzkoako aldezkaritza Ofizialean argitaratzen den egunetik hasita, hoguei eta sei egun izango dituzte lanak aurkezteko. Lanen aurrekontua 299.958 eurokoa izango da.



Laster beste leku batean izango da ambulatorioa.



AUTO-ESKOLA



ZUMAI A

Basadi, 12 behea Tel. 943 861018

- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua
- Praktika eta azterketak Azpeitian
- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea



Tel. 943 860000

ERROTA
OPIL-OKINDEGIA

EHNAk sekulako arrakasta

Hirurehun zumaierrek baino gehiagok egin zuten euskaldunon nortasun agiria. Urtarrilaren 17an beste aukera bat izango dute egin gabe geratu zirenek

Sei ordutan zumaier mordoak bildu zen Oxforden euskal nortasun agiria egiteko. Une askotan ilara luzeak ere izan ziren. Guztira hirurehun zumaier baino gehiagok bete zituzten EHNA eskuratzeko agiriak. Emakumeak, gizonetakoak, zaharrak eta gazteak, denetik inguratu zen. Hala ere, batzuk egin gabe geratu ziren. Horregatik, horiek beste aukera bat izango dute, urtarrilaren 17an, larunbatean, goizeko 11:00etatik 14:00etara, Oxforden bertan. Eraman beharrekoak hauek dira:

- 3 argazki.
- Udalaren errolda-agiria (Udalean eskatu behar da. Telefonoz ere eskatu daiteke)
- 15 euro.



Lan bakarra aurkeztu da Zumaiaiko Toponimia aztertzeke beka deialdirako

Epaimahaikoen esku dago orain lana onartzea

Harrera eskasa izan du Zumaiaiko Udalak ateratako bekak. Gogoratu beka horren bitartez, gure herriko leku izenak jaso, finkatu eta aztertu nahi direla. Beka eskuratzeko lanak aurkezteko epea abenduaren 15ean bukatu zen. Bada behin epea bukatuta, lanak kontatzen hasi eta bakarra. Bera zumaier batena dela esan digute Udaletik. Orain epaimahaiak aztertu beharko du lan hori. Itxura guztien arabera ontzat emango dute, eta lanaren egilea azterketa-rekin hasteko moduan izango da. Urtebeteko epea izango du horretarako.

Kongo-lagun taldearen berriak

Gabonetan Erribera kalean zabaldutako erakusketa eta salmenta amaitu denez, Kongo-lagun taldekoek eskerrak eman nahi dizkizue laguntza eman duzuen guztioi. Aipatzekoa da Kongotik ekarritako arte-lanez gain, hainbat zumaierrek beraiek egindako lanak eman dituztela, bertan saltzeko. Eskerrik asko guztioi!

Bestetik, jakinarazi nahi dute zein izan diren zenbaki sari-tuak:

- 1) Imanol Elorzaren koadroa: 2474 (eta ordezkoa: 2339)
- 2) Bigarren saria: 4031
- 3) Hirugarren saria: 0256 eta 1558



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157



Alta-Mari auzategia, 17
Tel. 943 861569



Itzurun, 1 Tel. 943 143224

MIKEL LIZEAGA
SAGARDOGILEA

"Probatu dugu sagardoa, eta oso gustura gaude



Sagardo denboraldia hastear dago. Hemendik aurrera jendez gainezka izango dira sagardotegiak. Sagardoa litroka eta litroka aterako da kupeletatik. Astigarraga eta Hernani alderako urteroko prozesioa hastear da.

LIZEAGA SAGARDOTEGIKO semea da Mikel. Bizi Zumaian bizi da, baina ofizioa etxean du. Bertan izan gara solasean, Txirrita handiak argazkitik serio eta edalontzia eskuan begiratzen zigun bitartean.

Zer moduzkoa izango da aurtengo sagardoa?

Mikel Lizeaga: Frutak beroa eta euria behar ditu ona aterzeko, eta udan biak izan genituen. Hasieran beroa egin

zuen, eta fruta heldu samarra zegoenean euria. Probatu dugu sagardoa, eta oso gustura gaude.

Bukaerako emaitzagarriak galdetu dizut, baina nolakoa izaten da kupeletara iritsi bitarteko prozesu guztia?

Mikel: Hasteko, sagastiak ondo zaindutakoa izan behar du. Ongarri onak erabilita, ziurtatuta daukagu kalitateko sagarra. Gero, irailean eta urrian sagarrak biltzen ditugu. Bildutakoa ganbaran uzten dugu, eta matxakatik barrena

dolarean bukatzen dute. Ondoren, dolaretik egurrezko tini batera eta hortik kupelera. Fermentatzen uzten dugu orduan, eta temperatura beroa bada azkarrago etortzen da sagardoa. Prozesua luzatzea komeni bada, temperatura hoztu egiten da serpentinen bidez, eta ondorioz sagardoa atzeratu egiten da.

Behin sagardoa eginda, kopuru bat kupeletara doa, eta beste bat botiletara. Kalitate onena duena izaten al da botiletakoa?

Mikel: Hor sagardogile bakoitzak bere estrategia dauka. Gaur konpetentzia oso handia dago, eta bakoitzak ikusten du zer egin: kalitatea saldu edo kantitatea saldu. Behin kupeletik tiraka hasita, sagardo horrek bizitza galtzen du. Gazitu egiten da. Kupelaren goialdean oxigenoa hartzen du, eta sagardoarekin nahastuta sagardoa bera gazitu egiten da. Hori botilatan sartuz gero, ez da ezer salduko. Ez du botilatan sartzeko balio. Horregatik, kupel batzuk ukitu ere ez dira egiten, eta bere-berean uzten dira kalitate egokia hartu arte. Orduan, botilatan sartzen da sagardo hori.

Zenbat denbora iraun dezake sagardoak botilatan?

Mikel: Ni neu urtebetean edatearen aldekoa naiz. Bi urte ere iraun dezake, ondo zainduz gero, baina nik nahiago urtea bete baino lehen edatea. Sekretua zaintzea da; kantitateari kalitateari baino garrantzia gehiago emanda jai dago.

Urtean zenbat litro sagardo egiten dituzue?

Mikel: Gutxi gorabehera 150.000 litrotik 200.000 litrora bitartean.

Gaurko kontuak laga eta historian atzera eginda, Lizeaga garai batean zer zen?

Mikel: Sagardo mundua XII. eta XIII. mendetik dator gutxi gorabehera. Horren arrastoak dira hainbat izen, Sagarzazu, esaterako. Gure kasuan, ez gara asko arduratu historiaz. Hala ere, gure aitonen gurasoenganaino jo behar-ko genuke. Aitonen garaian hau ukuilua zen. Abeltzaintza



“Sekretua zaintzea da;
kantitateari kalitateari baino
garrantzia gehiago emanda
jai dago”

eta sagarra bera ziren diru iturri nagusiak. Gogoan dut, ni umea nintzela jendeak etxetik ekartzen zuela bere kazuelatxoak. Gero, hemen txarroka kobratzen zitzaaien edaria.

Hortaz, belaunaldiz belaunaldi igarotako ofizioa da zuena.

Mikel: Bai. Gure aita gazterik hil zen, eta aitona era-kutsi zigun hau dena zer den. Gogoan dut, berak egiten zituela kupelak. Asko erakutsi zigun. Behin aitona hilda, banandu egin ginen. Gure anaiak hartu zuen hemengo ardura, Lizeagakoa, eta osaba egin zen ondolan dagoen Gartziategiren jabe.



Amaiako plaza z/g

Tel. 943 860959

Gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

Upela plaza, 4

tel: 943 860970

English School
Harvest

Ingelesko klaseak adin guztietan

San Jose, 11 bis

Tel. 943 143334

Gaur egungo sagardotegiek garai bateko giroa galdu dutela dirudi. Orain negozio hutsa direla esan al daiteke?

Mikel: Egia esanda, bat berak ere ez du kiebra jo. Hala ere, jende asko ibili arren, gastu handiak izaten ditugu. Kanpotik ikusten ez bada ere, galera handiak izaten dira. Denek diote mauka handia direla sagardotegiak, jende mordoa dabilela, eta hau eta bestea, baina sarrerak eta irteerak parekatuz gero bat baino gehiago isiltzeko moduan legoke. Egia da, irabazien eta galeren artean tartea dagoe-la, baina ez jendeak uste duen adinakoa.

Aspaldi giro berezia izaten zen sagardotegietan. Bertsolariak, kantuak....Orain hori galduta edo galtze-ar dago.

Mikel: Lehen sagardotegiak bertsoetarako, kopletarako eta poesiarentzako ziren. Nik horrela definituko nituzke. Bakoitzak bere merienda eka-ri, eta broma giroan hurrengo goizera arte hemen izaten ziren. Gurean bada Txirritaren argazki bat, tenore horretan ateratakoa. Hemen biltzen ziren denak, hori bai, guztiak gizonezkoak.

Noiz hasi ziren emakumezkoak sagardotegietan sartzen?

Mikel: Gure etxean, behintzat, duela hogeita hamabosten bat urte. Gainera, sartzen zena markatuta gelditzen zen. Gerora egoera hori, zorionez, bere onera etorri da.

Lehen aipatu duzu sagardotegiak aspaldi baserriak ere bazirela. Noiz hasi zen sagardotegia baserriari aurea hartzen?

Mikel: Nik uste XVII. mendean-edo hasi zirela. Industrializazioarekin batera konturatu ziren sagardogileak negozio ona izan zitekeela. Pasaiko portua hemen bertan izanda, aukera ederra zen hori sagardoa kanpoan saltzeko. Nik gogoan dut gure aitonak gurdi zahar batean eramaten zuela sagardoa Donostia aldera. Denborarekin ukuilua baztertu eta sagardotegia indartzen joan zen, eta horrelaxe gaur arte.

“Litekeena da hemendik zenbait urtera beharrezkoa dugun sagar kopurua bertan ateratzea, baina gaur egun ezinezkoa da”

Sagarren jatorriari buruzko eztabaida ere badago. Kanpokoak hemengoak baino gehiago erabiltzen dituzue. Nola ikusten duzu hori?





“Sagardoa egiteko prozesua oso gogorra da”

Mikel: Lehen garai batean nahiko sagasti zegoen hemen inguruan. Gure aitonak esaten zuen, Astigarragatik Asteasuraino sagastien itzalean bazegoela joatea. Gero, gutxituz joan ziren, eta ez zituzten berriz landatu. Orain berriro hasi dira sagastiekin lanean, baina gazteegiak dira. Egin ezazu kontu sagasti bakoitzak hogeita hamar bat urte irauten duela. Litekeena da hemendik zenbait urtera beharrezkoa dugun sagar kopurua bertan ateratzea, baina gaur egun ezinezkoa da. Garrantzitsua da, gainera, bertako sagarra era askotakoa izatea. Horregatik diot nik kanpoko oso aberatsa dela.

Nondik ekartzen duzue kanpoko sagarra?

Mikel: Galiziatik, Asturiastik ekarri izan dugu. Hor ez zegoenean, berriz, Britainia eta Normandiakoa erabili dugu, eta orain hiru bat urte Txekiatik ere ekarri genuen.

Hemengo sagarretan nahasketa gutxi dagoela diozu, orduan.

Mikel: Bai, horrela da. Era askoko sagarra izatea ezinbestekoa da. Hala ere, iazko kanpainan guk erabilitako sagarrak gehienak hemengoak ziren. Kamioka eta erdi sagar baka-rik ekarri genuen Galiziatik, hemengoekin egin ezin zitekeen nahasketa egiteko.

Edozein sagarrekin egin al daiteke sagardoa?

Mikel: Ez, ez. Mahaian izaten ditugun sagarrek ez dute balio. Errege sagarra da balio duen bakarra.

Sagardoa ona izateko sagar mota asko nahastu behar dira, hortaz.

Mikel: Bai. Geza, gazia, mikatza eta belakatza nahastea komeni da. Neurrian, baina denetik izan behar du. Dolaretik pasa eta gero probatu egiten da, eta orduan erabakitzen da sagar gozoa behar duen edo mikatza. Beste sagardogile batzuek enologoen bitartez probatzen dute, baina guk ez.

Osasun neurriak gero eta zorrotzagoak al dira?

Mikel: Aldundiak gero eta gehiago zaintzen du sagar- dotegien mundua. Leku batzuetan, sagardoa kupeletan sartzen denetik astero begiratzen dute. Muestra bat hartu, eta laborategira eramaten dute. Botilatan sartze-ko garaian ere, laborategien bitartez garraztasun pun- tua kentzen diotenak ere badira. Guk ez, guk ez dugu horrelakorik egiten.

Laborategien munduaren sarrerak lehengo teknikak baztertuko al ditu?

Mikel: Dudarik gabe. Gure aurreko belaunal- diek utzitako lanak eta sistemak aldatu behar-ko ditugu, baina hori normala da, gero eta nego- zio itxura handiagoa hartzen ari delako mundu hau.

Denboraldia hastear dago, eta orain lana gogor egin beharko duzue. Hala ere, aurretik lan handia eskatzen du sagardo- tegiak. Zein da garai gogorragoa, denbo- raldikoa edo aurrekoa?

Mikel: Sagardoa egiteko prozesua oso gogorra da. Dolarean sagarra jotzen gau eta egun aritzen gara, gelditu gabe. Sagarrak ezin du pilatu, berotzen hasten delako, eta berotzen bada izorratu egiten da. Horregatik inularrean, gauean edo goizean goiz jo behar da sagarra, eguzkiak berotu baino lehen.

Denboraldiko garaiak, edo txiriko garaiak bi alderdi ditu. Jendea sagardotegian lepo dagoenean oso polita izaten da, giro ederra egoten da, baina horiek alde eginda gero, hurrengo egunerako prestatzea gogorra izaten da.



MIKEL LIZEAGA

47 urte ditu. Baserri mundua oso gustuko du, batez ere animaliak. Mendira joatea asko gustatzen zaio. Batere gogoko ez duena irakurtzea da. Telebistan botatzen dituzten naturako saio guztiak ikusten ditu.

Alegazioak Santiagoko egitasmoari

Santiagoko eremua eraberritzeko proiektuari aurkeztutako alegazioak aztertzen ari dira. Hori eginda gero, proiektua Udal batzarrean eztabaidatuko dute. Lanak hasierako pare bat urte izango dira.

Egitasmoa egin dutenak eta alegazioak aurkeztu dituztenak bat datoz Santiagoko eremua eraberritu egin behar dela. Hor dauden dunak oso leku gutxitan daude, eta zaindu egin behar dira. Horra arte denak konforme. Hala ere, egitasmoa egiteko moduarekin batzuk ez daude ados, eta alegazioak aurkeztu dituzte. BALEIKEk alegazio horietako batzuk eskuratu ahal izan ditu.

Udalaren egitasmoa

Alegazioak aztertzen hasi baino lehen, Udaleko Hirigintza sailaren proiektua azalduko dugu. Bi zutabetan oinarritzen da: dunaren berreskuraketa da zutabeetako bat. Bestea, hondartzako zerbitzuen kalitatea hobetzea.

Egitasmoa egiteko moduarekin batzuk ez daude ados, eta alegazioak aurkeztu dituzte.

Dunei dagokienez bi gune nabarmentzen ditu Udalak. Bat Zuloagako etxearen ondoan dagoena da, itsasorantz ematen duena. Ondoen zaindutakoa dela dio, eta ondorioz gune hori babesteko neurriak aurreikusten dira proiektuan. Babesteko, bertara heltzeko dauden sarrerak kentzeko proposatzen du, eta baita hor dauden kanpoko landareak desagerraraztea ere. Horretaz gain, gune horretan naturaz gozatzeko eta bertako landareen berri iza-

teko ibilbide didaktikoa egitea aurreikusten ditu egitasmoak.

Beste duna, ondo zaindutakoaren alboan dagoena da. Hau ez dago hain ondo zainduta. Proiektuak berreskuratu egin behar dela dio. Horretarako kanpoko landareak desagerrarazteko asmoa dute, eta baita berriak landatzeko ere. Gune horretan dauden erakuntza guztiak botako dituzte. Horko putzuak ingurua aberasteko erabili nahi dituzte, putzu freatikoa eginda.

Hondartzako zerbitzuen hobekuntzari buruz, taberna mugikorra da aipatzekoa. Hondartzaren ezker aldean egingo lukete, paolaldeko paseoaren aldean, eta mugikorra izango litzateke. Beste taberna bat ere egin nahi dute, baina hau finkoa izango litzateke. Bestea legokeen kontrako aldean joango litzateke hau, errepide ondoan. Inguru horretan jolasteko gunea egin nahi dute. Nabarmentzekoa da, baita ere, Orrua arte egin nahi duten bidegorria.

Horixe da, hitz gutxitan adierazita, Udalak aurkeztutako proiektua. Horrelako egitasmo guztiek bezala, alegazioak aurkezteko epea izan du honek ere, eta batzuk aurkeztu dituzte.

Nabarmentzekoa da Orrua arte egin nahi duten bidegorria.

Alegazioak

Esku artean ditugunak aztertuta, lehen kolpean atentzia ematen duten puntuak bi hauek dira: egitasmoa Udaleko arkitektoak egin duela, eta ez horrelako gaietan adituagoa den tekniko batek. Beste puntua honakoa da: proiektua egiteko Udalak ez dituela kontuan hartu dunen gaiarekin zerikusia duten herriko





taldeak, esaterako Natur Taldea, eta dunetan korrika ibiltzen direnak.

Egitasmoa arkitektoak egin izanarekin ados ez daudenek ez dute zalan-tzan jartzen arkitektoaren jakinduria. Beraien ustez, egokiago litzateke dunen gaian aditua den tekniko batek egitea. Horrekin lotuta, alegazioetan esaten da, proiektua egiteko garaian, inguruan ditugun Santiko eremuen antzeko lekuetan egindako lanak ez direla aztertu. Zarauzko kasua nabarmentzen da, batez ere.

Egitasmoak ingurumenean izango duen eragina aztertzeko ere eskatzen dute alegazioetan. Egitasmoaren neurria eta, batez ere, dunen balioa kontuan hartuta, ezinbestekotzat jotzen dute azterketa hori egitea. Horrelako guneetan egin beharreko lanetan, Europako Batasunak eta Eusko Jaurlaritzak ingurumenaren gaineko eragina aztertzeko gomendatzen dute.

Alegazioetan agertzen den beste

eskaera bat haxe da: proiektua behin betiko onartu eta lanak egiten hasi baino lehen, gune naturalak babesteko legeari jarraituz, errekurso naturalen ordenantza bat egitea.

Udalak ez ditu kontuan hartu gaiarekin zerikusia duten herriko taldeak, Natur Taldea esaterako.

Dunetan egin beharreko lanak oso gainetik azaltzen direla ere badio alegazio batek. Gainontzeko lanak ondo zehaztuta daudela dio, baina garrantzia gehien duen eremuko lanek zalan-tzak sortzen dituztela. Gainera, aurrekontua



zehaztuta dago, eta hori ingurumena-ren gaineko eragina aztertu baino lehen egitea ez da zuzentzat hartzen alegazio horretan.

Bestelako eskaerak batzuk ere badaude. Orain arte aipatutakoekin lotutakoak dira gehienak.

Bestelako eskaerak

Dunak babestea eta eraberritzea ondo ikusi arren, hondartza urbanizatzea ez da hain beharrezkotzat jotzen. Gainera, dunek bilakaera naturala dute, eta berezko bilakaera hori ez behartzea komenigarria litzateke. Hala ere, kanpotik zerbait aldatzea erabakiz gero, bilakaera natural hori ikusita hartu beharko lirateke babestu eta eraberritzeko neurriak.

HARRAPA ZANK

ORAIN URTE BATZUETAKOA EZ DADILA ERREPIKATU

KIROL PORTUAREN eraikuntzak sekulako iskanbila eragin zuen herrian. Une txarrak bizi izan genituen. Santiagoko lanek badute parekotasunik kirol portukoekin. Bietan, eta horrelako lan guztietan bezala, ingurumenaren balioa dago tartean. Orduko hartan, besteak beste, horrek eragin zuen liskarrik handiena. Oraingoan ez dirudi garai hartako istiluak izango ditugunik. Horrela hobe.

Hala ere, esaera zahar batek dioen bezala, gizakia da harri berarekin bi aldiz tratatzen den animalia bakarra. Eta oraingoan ere, Udalak ez ditu kontuan hartu gai horretan interesa duten herriko taldeak. Egitasmoa egiterakoan ez zituzten kontuan hartu. Itxura denez, kirol portua egin zen garaiko ezinikusiek oraindik ere jarraitzen dute. Egia da, batek baino gehiagok beltzak pasa zituela orduan, gaia asko gaiztotu zelako (edo zutelako batzuek). Hala ere, horrek ez du zilegi egiten tamaina honetako egitasmoa Udalak bere kasa egitea. Hori al da herriarenganako hurbiltasuna? Gehienetan bezala, politikariek herria hankapean ibiltzen dute. "Herriarentzat, baina herririk gabe!!" da asko eta askoren leloa. Zoritarrez, beste aukera bat galdu dugu. Udalak, gainera, ezusteko atseginen bat izango zuen, akaso, herriko taldeek Santiagoko egitasmoari buruz dituzten iritziak eta proposamenak entzun izan balitu. Gainera, egitasmoa askoz aberatsagoa izango litzateke. Edo ez?



egiten dizkiogun kalteak ikusteko modua legokeelako.

Santiko ur zikinen garbiketak ere izan du erantzunik. Udalak bertan garbitzea proposatzen du. Araztegira eramateko biderik ez dagonez, ez da proposamen txarra, baina alegazio batek dio etorkizuneari, kirol portutik barrena araztegira bertara eraman beharko liratekeela ur

zikinak. Horrela, Santiko gunea zikintzeko arriskua saihestuko litzateke.

Urbanizazio lanak egiten dituzten bitartean dunen gunea ixteko ere eskatzen da. Hartara, dunetan ez litzateke jenderik sartuko, eta horrek mesede egingo lioke dunen egonkortasunari.

Bukatzeko, dunari ez dagozkion elementuak (taberna, mahaia, aul-

kiak) bertan sartzea berezko bilakae-rarentzat kaltegarria dela dio beste proposamen batek. Sartzekotan udan ipini eta neguan kentzekoa izan beharko luke.

Gainetik azalduta, horiek dira alegazioak eta proposamenak. Orain jendearen iradokizun horiek aztertzen ari dira, eta gero Udal batzarrak erabakiko du onartzen dituen edo ez.

GIZARTEKINTZA zentru soziala

KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

• denontzat irekia



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zerbitzuetaarako departamentu

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00

GALDERA HONI ERANTZUN DIOZUE:

Noiz edo noiz konponduko al dute Zumaia eta Getaria arteko errepidea?

Izorratu eta konpondu. Izorratu eta konpondu. Horrelaxe dabilta bide horrekin. Ez al dira konturatzen itsasoak berari garai batean kendutako tokia beti berreskuratzen duela?

Inaxio

Gu ari gara errepide alu hori ordaintzen. Kontatuko bagenu eta kontatuko baligute zenbateko dirutza gastatu dugun atzeraka eroriko ginateke. Behin betiko konpon dezatela, eta kitto!!

Ander

Orain egin dutena beharrezkoa da, baina betikoa gertatuko da. Denborarekin hondatu egingo da, eta berriro ere lur jauziak eta horrelakoak izango ditugu.

Ana

Pirinioetako mendien itxura hartu du gure kostaldeak. Horiek dira horiek tunelak!! A ze dotorezia!! Hori bai, dena gure patrikatik ordainduta!!

Lorea

Oraingo obra partxe bat besterikan ez da, berriro ere hondatu egingo delako.

Praxku

CROISSANTERIA



pizzak
hanburgesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 TEL: 943 860719



SIWA
Belardenda

Besadi 9
943 143404

- Elikadura, belarrak, buztinak, tratamenduak,
- Kontsulta naturista
- Osteopatia, masajea
- Dietak
- Estetizista
- Solariuma
- Tai-chi, masaje eta Reiki ikastaroak



TALAI

INMOBILIARIA 943 143361

BIDAIK 943 143323

Ortega y gasset, 1

HAUXE DA HILABETE HONETAKO GALDERA:

- "Txukundu beharra dago leku hori. Obrak egin behar dira, eta lehenbailehen, gainera!!"
- "Udalak aurkeztutako proiektua ez da ona. Beste era batera egin beharko litzateke"
- "Gai horretan ari diren herriko taldeekin ez da harremanik izan proiektua egiterakoan".
- "Ondo dago iritzi kontrajarriak izatea, baina bi aldeek ez dezatela kirol portuarekin gertatu zena errepikatu"

Santiagoko hondartzan egin behar dituzten lanak beharrezkoak al dira?

Erantzunak helbide honetara bidali: baleike@topagunea.com



TXINGURRI

Koop. Elk.

Nekazaritza Injineru Teknikoak

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3ª 20.800 ZARAUZ
(GIPUZKOA)
Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

Jardinen diseinu
... mantenimendua
Nekazaritza zerbitzuak
Kirol zelaien mantenimendua
Txostenak ...
aholkularitza teknikoa.
Balorazioak

SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituenean

- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabiltza

- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

P. Etxezarreta, 19 bis Tel./Faxa: 943 861416

gidatzeko baimen guztiak



GAZTE, S.L.

ELEKTRIZITATEA

ARGIDENDA

Era guztietako instalazioak etxebizitza, pabilioi eta herriko argietan

Trenbide 5.pabilioia Tel./Faxa: 943 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 23
Tel. mugikorra: 608 143409

Alberdi

Gizonezkoen moda



Erribera kalea, 6
Tel. 861155

Tapaia

SAIOA
taberna

ORTEGA Y GASSET, 3

943 860151

AROTEGIA

Urolo 2000, s.l.

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberritzea
- *Enbarkazio konponketa
- *Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- *Armairu enpotratuen aurrealdea
- *Aroztegi metalikoa

Trenbide kalea, 1 Tel. 943143505

Jose Maria Zubia, Mari zeritzon zumaiarrari bertsoak

AITA MARI deitzen dioguna, 1809 urtean jaio zen Zumaian eta 1866 ko urtarilaren 9an galdu zen Donostia-ko portu sarreran. Oraintxe dugu, beraz, urte betetzea. 1881 urtean paratu zituen bertso bikain hauek Tolosako Ramon Artola bertso idazle klasikoak, eta urte berean argitara eman Euskal Erria izeneko aldizkarian. Donostiako Lore Jokoetan saritua izan zen bertso sail hau. 15 aleko sorta da berez baina guk hauetxek aukeratu ditugu gaurkoz zuentzat. Pello Josepe edo zortziko handiko edozein doinutan kanta ditzakegu, baina *Haurtxo txikia negarrez dago* edo sentimenduzko beste horrelakoren bat litzateke egokiagoa.



Zumaia-ko Bertso Eskola

Doinua: Haurtxo txikia negarrez dago

-1-

*O Mari leiak, on bihotz hutsa
haien malkoak txukatzen
zenbait alditan saiatzen zinen
gustoz zinela nekatzen
aitu orduko txalupak nola
zebiltzan kanpoan galtzen
hil edo bizi joanda zinduzen
hango gizonak ekartzen*

-3-

*Gisa honetan bizi zinela
ailegatu zen eguna
oi zein tristea, geroztik ongi
denok gogoan deguna
hau zen txalupak galdu zirena
haizetsu oso iluna
hango gizonak salbatzen zere
bizia galdu zenduna.*

-2-

*Zure bihotza maiz azaltzen zen
eduki arren gordean
zeinak bulkarik gorputza jarri
eraitu zizun lanean
non zen hestura-aldi gogor bat
eta beti zu zinen han
anaia maite asko salbatu
ohi zenduen ur gainean*

-4-

*Haiek azkentzen zeuden denboran
ezin ibiliz igari
azaldu ziran beren laguntzan
beste txalupa haundi bi
zein zen aurretik ur mendi tontor
haien gainetan gidari
handik minutu gutxira beren
azpian ito zen Mari.*


Julene Azpeitia (1888 - 1980)

Maistra zen lanbidez. Abadiño, Bilbo, Zumaia, Ea eta Zornotzan jardun zuen irakaskuntzan. 1896an Mexikora jo zuen eta han lau urtez egon zen; 1920an Euskal Herrira itzuli zen.

Espainiako Gerra Zibilaren ostean erbesteratu egin behar izan zuen. Bizkaiko Diputazioko eskolatan (1947) eta Burgos aldean egon zen irakasle (1949-1952). Euskaltzain urgazle eta 1975az geroztik euskaltzain ohorezko izan zen. Garaiko euskal aldizkari gehienetan idatzi zuen (Euzkadi, Yakintza, Euskera, Egan, Karmel, Zeruko Argia).

Haur-literaturaren alorrean nabarmena zen hutsunea betetzen ahalegindu zen, idazkera egokiz eta helburu pedagogikoez. Idatzi zituen lanen artean aipagarri:

- Haurrentzako ipuin eta irakurgaiak: "Amandriaren altzoan" ipuin-bilduma; "Irakurri, Matte", 1932; "Zuentzat"; "Goi-zeko Izarra", 1959; "Auntza Baratzan", 1959.
- Nobelak: "Odolak, odolari dei" eta "Martxela".
- Sukalde-liburu bat: "Osasuna, merketa eta yanaritza".
- Irakurtzen eta idazten ikasteko haurrentzako metodo bat: "Umien Adiskidea", 1961.



Nikol Enea



TABERNA

Amaiako plaza

OSTOLAZA

BURDINDEGIA

Aita Mari auzategia, 10 behea
tel: 943 86 16 66
e-mail: denda@ostolaza.com
www.ostolaza.com

Labean egindako legatz buztan betea

Sukaldaritza

O SAGAIK.

600 gramoko legatz buztana
Tipula bat
Baratzuri ale bat
Zuritutako eta zatitutako
12 langostino
Haragi zukua
Olioia eta gatza
2 edo 3 patata
Baso bat sagardo



Befiat Fernandez
de Arroyabe
Sukaldaria

Nola egin

Legatz buztana garbituko dugu, eta luzetara ireki ondoren erdiko hezurra kenduko diogu (arrandegian egin diezagukete hori). Txikitutako baratxuria langostinoekin nahastu, eta ondoren horrekin legatz buztana bete. Labeko xafla edo plaka batean zatitutako patata ipiniko dugu olio pixkatekin eta juliana eran ipinitako tipularekin (entsaladetan bezala). Gainean legatza jarri ondoren, gatza egin eta labean sartuko dugu. Sei bat minutuan oso beroa egon behar duen labean utzi. Minutu horiek pasa ondoren, labetik atera

eta haragi zukua eta sagardoa bota. Berriro ere labean sartu, oraingoan bost bat minutuz, eta egina egongo da. On egin!!



Ze eguraldi?

Internet

E USKALDUNEN ARTEAN beste hizketa-rako gairik ez badago eguraldia izaten omen da gure hizketagaia, bada Internet-en ere bada webgune interesgarriak eguraldiaren inguruan. Euskal Herrian bi ditugu nagusienak, bata, Eusko Jaurlaritzaren Meteorologia eta Klimatologia Zuzendaritza, eta bestea, berriz, Euskal Herriko Klimatologia eta Meteorologia Elkarte.

Azken hau, Euskal Herri guztiko eguraldi iragarpena ematen saiatzen da, jakina denez egunerakoa eta hurrengo egunetarako bereizten dute. Itsasoaz ere informatzen dute, eta itsasoaren egoeraz gain itsasgorak eta itsasbeheren ordutegia



Ibon Aizpurua
**Informatika
ingeniaria**

ematen dute eguzkia eta ilargiaren sartu-ertenekin batera. Oso diseinu argia dauka eta irakurterrezak dira erabiltzen dituzten zeinuak.

Aipamen berezia merezia du herrikako informazioak, probintzia bakoitzeko zona gehienetan

herri bat edo biren informazioa eskaitzen dute (gaur, bihar eta etzirako iragarpena). Zumaia ere tartean ageri da.

Eta webgune mamitsu hau osatzeko denda bat, azken berriak, tenporak eta meteorologia eta klimatologiari buruzko hainbat informazio eskaintzen da.

Eusko Jaurlaritzak duen webgunea ere oso mamitsua da, eguraldiaren iragarpenaz gain, EAEn zehar dituzten estazio meteorologiko guztien informazioa kontsultatu daiteke egunean bertan.


Bi hauetaz gain, kanpora joan behar badugu baditugu Espainia eta Frantziako meteorologia zerbitzuak ere.

www.ehkme.com

www.inm.es

www.euskadi.net/meteo

www.meteo.fr



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12

Tel. 943 861412



Ricardo J. Azcue Yeregui

Abokatua • Asegurak
Finika Administrazioak

biomis aguirre 4. behea
20.750 zumaia (giuzkoa)
E-mail: razcue@euskalnet.net

Tel. 943 862651
Fax: 943 862746



* Etxeak eta dendak
* Enpresa eta auzo lanak
* Errota garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A
Tel. 943 861670

Imanol Lopez: "Txapelak aurrera egiteko indarra eman dit"

Sei hilabete daramatza profesioaletan, eta dagoeneko txapelketa bat irabazi du. Urrezko Zestako finalean, berak eta Goixerrik, Alberdi anaiak menperatu zituzten.

Gustura dagoela antzematen zaio. Txapela irabazteak lasaitasun handia eman dio, eta etorkizunera itxaropenez begiratzen du.

Profesioaletan lortu duzun aurreneko txapelketa izan da Urrezko Zesta. Berezia izan al da?

Imanol Lopez: Bai. Profesioaletan irabazten dudan lehen txapelketa izan da, eta ilusio asko egin dit. Oso gustura nago.

Finala jokatu zenuenetik egun batzuk pasata, beste era batera ikusten al duzu txapelketa irabazi izana?

Imanol: Esanahi berezia duela konturatu naiz. Beste edozein partida irabaztea bezalakoa ez zen izan. Gainera, aurrera jarraitzeko indarra eman dit.

Txapelak zertako balioko diozu?

Imanol: Ziurrenik konfiantza gehiago hartzeko, eta aurrera egin behar dudala konturatzeko. Profesioaletan hasi nintzenean ez nuen bat ere ondo jokatu. Onenekin jartzen zidaten, eta ezer erakusteko aukerarik ez nuen izan. Iñaki, Gotzon eta onenak kanpogan izanda, orain da garaia zerbait erakusteko, eta alde horretatik gustura nago.

Hainbesteko jauzia al dago afizionatu mailatik profesioaletara?

Imanol: Bai, niretzat oso jauzi handia dago. Berehala hasi nintzen onenekin jokatzeko, eta jauzi ikaragarria dagoela konturatu nintzen. Egokiagoa izango zen nire



mailakoekin hasi, eta pixkanaka gorantz egitea.

Gazteak onenen pare azkarregi jartzen al dituzte enpresek?

Imanol: Nire kasuan bai, behintzat. Orduan ez neukan mailarik onenekin jokatzeko. Udan, Amerikatik itzultzen direnean ikusiko dugu haien pare nagoen edo ez. Hortxe daukat muga jarrita.

Profesioaletan sei hilabete daramatzazu. Espero zenuena aurkitu al duzu?

Imanol: Oso gustura nago. Pilotarien artean oso giro ona daukagu, eta herri batetik bestera partidak jokatzeko ibiltzea asko gustatzen zait. Kanpokoa oraindik ez dut ezagutzen, baina orain arte ikusitakoa oso esperientzia polita izan da.

Iñaki, Gotzon, Alberdi anaiak, zu zeu... Zer dauka Zumaiak hainbeste pilotari on ateratzeko?

Imanol: Zer den ez dakit, baina zerbait badauka. Akaso, gazteak gehiago animatzen dira herrikoek garaipenak lortzen dituztela ikusita. Horrek baliteke bultzada ematea.

Zumaiako eskolan pilotari asko dabilta. Asko izatera, tarteka bat edo beste ona ateratzeko aukera gehiago, ezta?

Imanol: Ez da hain erraza. Nahiko kirol garestia da, eta gainera, kirol bat edo bestea aukeratu behar denean, ume askok futbolera- eta jotzen dute. Lagun gehienak ere futbolera edo eskubaloira joaten dira, eta ez da hain erraza zesta puntan aurrera egitea.

Pilotan erramienta mundua larri xamar dabilela dirudi. Etorkizun hobea izateko zer behar du zesta puntak?

Imanol: Ez da erraza horri erantzutea. Propaganda gehiago egitea ez legoke gaizki. Telebistaz partida gehiago eman beharko lirateke, gehiago saldu zesta punta. Sarrerak merkeago jarriko nituzke, baina enpresario-entzat negozioa da, eta ni ez naiz horretan sartuko.

Telebistak baztertuta al dauka esku pilota ez den beste guztia?

Imanol: Hori bakoitzak ikusiko du, baina urtean zehar eskuzko partida piloa botatzen dituzte, eta zesta-puntakoa hamar.

Uda garaian, onenak hemen daudela, jende gehiago joaten al da zesta punta ikustera?

Imanol: Gu aurtengo neguan Bilboko Deportivon ari gara, palako partiduekin batera. Horra betiko jende kopurua joaten da, pala zaleak. Udan, Gotzon eta Iñaki ikustera, adibidez, jende asko joaten da, batez ere txapelketetara.

“Kanpoko frontoi batzuk itxi dituzte, eta horrek gugan eragina du”



Aurrera begira jarrita zer asmo daukazu?

Imanol: Orain Bilbon jarraituko dugu, astelehenetan eta larunbatetan partidak jokatzeko. Gero, uda iristen denean txapelketak hasiko dira: banakakoa, interkontinental, Miarritzekoak, Munduko Txapelketa... Eta horiek bukatuta, udazkenean Amerikara noa, Daniako frontoira.

Zenbat urterako sinatu duzu haiekin?

Imanol: Bi urterako. Azarotik uztaileira han izango naiz, eta uztailetik azarora hemen.

Zer moduzko egoeran daude Amerikako frontoiak?

Imanol: Momentuz mantentzen ari dira, eta ez da gutxi. Australia aldean frontoi bat irekitzekotan direla entzun dut. Noiz ez dakit, baina zerbait badabil. Parisekoa irekitzeko-

tan zeuden, baina ematen du azkenean ez dutela irekiko. Pauen irekiko dute bat, eta Munduko Txapelketa han izango da.

Kanpoko frontoiak ixteak hemengoak ere arriskuan daudela esan nahi al du?

Imanol: Kanpoko frontoi batzuk itxi dituzte, eta horrek gugan eragina du. Gero eta pilotari gehiago gaude, eta frontoiak gutxiago dira. Maila ona eman beharra daukagu goian mantentzeko.

Miami alde horretan hainbeste zumaiar izanda, ez zarete alferrik galduko...

Imanol: Gero eta zumaiar gehiago gara, eta ederki. Han dira Gotzon, Osa hiru anaiak, Unai... zerbait izango da.



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA MOTOR

Santixo auzoa, 22
tel. 943 143 143 faxa: 943 865 161

ILEAPAINDEGIA



San Telmo, 12
Tel. 943 860760

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 943 143058

Garai batean orain baino eskale gehiago izan zen, nonbait. "Zumaia Historia" liburutik hartutako pasarte hone-tan, XVIII. mendean eskaleen arazoari aurre nola egiten zioten azaltzen da. Oraingo eskaleen bizimodua gogorra bada, ordukoena oraindik eta gogorragoa zen. Pasarte irakurrita konturatuko zarete horretaz.

ESKALEAK ETA POBREAK

ESKALEAK ETA BATETIK bestera ibiltzen ziren marjina-tuak izan ziren gizarte arazo nagusietako bat XIX. mendera arte. Udal eta probintziako agintariak eta Erregearen orde-zkariak hainbat pragmatika onartu zituzten horien jardura geldiarazteko, edo kontrolatzeko bede-ren. Marjinatuen jatorria oso anitza zen, baina gehienak pobre eta eskale kanpotarrak ziren.



Hala ere, Zumaia kontzejuak ez zuen gai horri buruzko inolako xedapen zehatzik eman. Udal agintariak errege-pragmatikak eta Probintziako orde-nantzak onartzera mugatu ziren, nahiz eta batzuek Hiri-bilduko berezitasunen arabe-ra egokitu zituzten. Bi izan daitezke, ustez, jokabide horren arrazoiak: Erregimentua gai horretan utzikieriaz aritzea edo Zumaian talde marjinalak oso urriak izatea. Gure iritziz, bigarrena izan zen benetako arrazoia. Kontuan hartu behar da, oso adierazgarria baita, Erregeak Probintzian zituen ordezkariak

riek zumaiarrei behin baino gehiagotan eskatu zietela erre-ge-zedulan xedatutakoak zehatz-mehatz bete zitzatela. Horrelako eskaerak birritan egin zitzaizkien gutxienez: 1739 eta 1772. urteetan, hain zuzen. 1739ko urtarrilaren 31n, kon-tejuari Errege-Agindua bidali zioten Madriletik. Zumaia-ko jurisdikziopean atxilotutako eskale, lapur eta gaizkileen zerrenda – eta baita preso zeudenena ere- gortera bidaltze-ko agindu zitzaizen bertan. Indarrean zegoen errege-prag-matika ez zutela betetzen eta horrek Errege-Ogasunari kalteak eragiten zizkiola ere gogorarazten zitzaizen. Gainera, gutu-nean Errege-Aginduaren oinarritzko edukiak sartu zituzten.

Hitz batean, errege-aginduaren bidez, Felipe V.ak marjinal guztiak armadara bidali nahi zituen, nazioartean zituen gerra guztien ondorioz eragindako gastuak murriztu ahal izateko.

1772an beste errege-pragmatika bat onartu zuten. Horren helburu eta edukiak oso bestelakoak ziren, Erresumako ego-er politiko eta ekonomikoa ere oso bestelakoa baitzen. Garai hartan, penintsulan egonkortasuna erabatekoa zen politikan, eta ondorioz, ekonomia suspertu egin zen alde guztietan, eta baita gure Probintzian ere. Gauzak horrela, aipatutako errege-aginduaren bidez, Gipuzkoako udalerrie-tan eskean ibiltzen ziren pobreen jardura arautu nahi izan zen, eta gainerako herrialdeetatik Gipuzkoara etortzen



Azkue Autoak

Tel: 943 861433
Estazioko kalea, 19 Faxa: 943 861067

AITA MARI
KAFETEGIA

Julio Beobide, 15 Tel. 943 861395 Zumaia

Arkupe



*Okindegia
eta gosariak*

Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521

ziren pobreak hartzeko hainbat baldintza ere finkatu ziren. Honako arau hauek ezarri ziren, hain zuzen:

1. Inork ezin zuen bere bizilekuari zegokion jurisdikziotik kanpo eskean ibili. Era berean, hiribilduetako justizia arruntak bertako pobreak derrigorrez hartu eta onartu behar zituen.
2. Kanpoko pobre bat atxilotzen zutenean, bertako alkateak pobrearen herriko alkatearengana eraman behar zuen, eta bigarrenak lehengoari ordainsaria eta eragindako gastuak ordaindu behar zizkion. Horretaz gain, pobreaki eskean lortutako diru eta gauza guztiak kendu egingo zizkieten.
3. Hiribilduetara oso pobrea zen erromesen bat iristen zenean, kontzejuak mutiko bat bidali behar zion bertako jurisdikzioan eskean ibiltzen laguntzeko. Eskean ibili eta jan edo lo ondo egin ondoren –horretarako egokitutako etxerik egonez gero-, erromesek lehenbailehen alde egin zezatela lortu nahi zuten horrela.
4. Herritarrek ezin zieten eskaleei etxe eta baserrietan gaua emateko lekurik eskaini, hori ospitaleetako zaindarien zeregina baitzen, halakoak zeuden lekuetan bederen.
5. Pobreak norbere hiribilduetan eskean ibili ahal izateko alkateak idatziz emandako baimena eskuratu behar zuen lehenbizi.



 Emilio Perez Elektrosailuen salmenta eta konponketa ADI Pobla Eteazarreta, 23 20750 ZUMAIA GIPUZKOA tel. fax. 943 143 415 E-mail: adiele@euskalnet.net	 AUTOS ZUMAIA Urola plaza 3-5 Tel: 943 86 14 85	 Kresala Taberna Julio beobide 3, tfno. 943 019 869	
 IZETA Urumea, 6 Tel. 943 862083	 LEIZE taberna Juan Belmonte, 6	 taberna JUSTA eguneroko bazkariak Erribera kalea, 20	

Andoni Ortuzar jaun agurgarria:

G

utun hau bidaltzen dizut eskaera bat egiteko, EITBko zuzendaria zaren aldetik.

Jakin zuenean zuri gutuna idatzi nahi nizula, aitzak esan zidan lagunduko zidala, eta jartzeko, jartzeko argi eta garbi, badagoela

Euskal Herrian pilota maite ez duen jendea, jende asko eta asko, eta esateko EITBri Ibarretxeren belarriak ikusten zaizkiola alboetan (nik begiratu diot telebista-aparailuari, baina ez diot ezer berezirik ikusi...); eta dena ez txarra jartzeko, idazteko ETBk egin duen gauzarik onena larunbat arratsaldeetan Txirri, Mirri eta Txiribiton jarzea izan dela... Baina nik esan nion ezetz, hori guztia esan nahi bazuen, idaztea zeukala berak gutuna, zer demontre! Nik beste asmo batekin idatzi nahi nizula, eta ez nuela nahi, inola ere, zu haserretzerik.

Nire eskaera orain azalduko dizut. Kontua da eguerdian, bazkalondoan, Shin Chan ikusten dugula, etxean, eta nik bezala eskolako gehienok, Irati Muñagorrik izan ezik, ez daukalako telebistarik, baina gehienetan ezin dugula kapitulua osorik ikusi eskolara joan behar izaten

dugulako, garaiz ailegatzeko. Hori behin eta berriz gertatu zaigu, eta azkenean esan nion andereño Marisari, ea bageneukan geroxeago sartzea eskolara, ordu laurden, eta prest nengoela arratsaldean geroago irteteko, eta erantzun zidan ezetz, hori ez zegoela bere esku, hori beste leku batean erabaki beharko luketela, eta galdetu zidan zergatik aldatu nahi nuen ordutegia, eta erantzun nion Shin Chan osorik ikusteko, eta ez zitzaidan, ba, hasi, Shin Chan lotsagabe hutsa dela, batere errespeturik ez daukala, eta... Nik, orduan, esan nion "Et-et-et, hori bai ezetz. Zuk ezingo duzu ordutegia aldatu, baina niri sermoirik ez bota. Baaaaaleeee?". Eta esan nion bere garaiko Mazingher Z hobia izango zela, akaso, edo orain jartzen duten Pipi galtzaluzeko hori... Eta haserretu egin zitzaidan, zapuztu, eta alde egin behar izan nuen. Beno! Eta, orduan, pentsatu nuen... Eskolan aldatu nahi ez badute, igual EITBko nagusiak aldatzea izango du, zorte pixka batekin, egoeraz jabetzen denean, eta igual ez zaio inportako... Ordu laurden gora, ordu laurden behera... Eta hemen natorkizu eskaera zehatza egitera: ba al daukazue eguerdian Shin



Julio Beobide, 3 behea 943 86 23 01

Antonio Etxabe



Gizonezkoen
erropak

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407

ZALLA

Taberna - Erretegia

* plater konbinatuak
* otartekoak
* oilasko erreak

San Pedro, 4 Tel. 943 862387



"Muagi"

ERREHABILITAZIOA
KIROL MEDIKUNTZA
FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea
Tel. 943 86 16 91

RPS: 066/02






Chan ordu laurden aurreratzea, ordu bata eta laurdenera, lasai-lasai eta osorik ikusi ahal izateko? Eta bide batez, aukera daukadanez, galdetu egingo dizut: zergatik jartzen duzue beti Heidi, Heidi eta Heidi? Gurasoentzat? Hor egoten dira, tonto-tonto, telebistari begira, irribarre txikiarekin... Zer... Hori baino serie bigun, zahar, aspergarriagorik... Horko ahuntz tontoak eta horko zakur zozoa, Lanbro... Diferentziko ederra da Elur, Shin Chan-ena!

eta beste 27 sinadura

Nire eskaera kontuan hartuko duzulakoan... Gora Shin Chan!

Aitor A.




Mota guztietako altzariak

Xanti Osa

Amaia plaza, 7
tailerra: 943 860914
denda: 943 862385

B. Etxegarai 2, behea
943 86 27 14



GAZTEEN ERROPA

dekorazioa
ALBERDI



696 726188
943 143261

- Eskaiola
- Pladur-a

GOIKO BODEGOIA
"Betiko Goiko"

Erribera 9 - 20750 ZUMAIA • Tel. 943 861391



INK-JET ETA LASER KARTUTXOEN
ERREGENERAZIO ETA SALMENTA

Tel/Fax: 943 143 192 - Juan Belmonte, 2 bajo - 20750 ZUMAIA

AMERICAN LESION

1997-AN IPARAMERIKAN argitaratua, Greg Graffin, Bad Religion taldeko abeslari eta ideologo punk-aren bakarkako lana dugu hau.

22 urte luzez punk-aren erreferentzia internazional nagusia den Bad Religion taldearen estilutik urrun, ez gara album punk batez ari (edo punk-rock-az, puristen bat ez dadin haserretu!), baizik eta

lan lasai eta introspektiboago batez.

Proiektu honetan, bere sentimendu pertsonalak azaltzen dizkigu UCLA-ko unibertsitatean biologiari doktore den abeslari honek; garai hartan berak izandako arazo personalen ondorio (emaztearengandik dibortziatu zen) datorkiguna.

Todd Rundgren, Utopia, Elvis Costello edota Day of Phoenix-en rock estiluaz gozatzen dutenentzako moduko diskoa dugu hau; pianoa, banjoa, ahots melodikoa (Bad Religion formula gogoratzen duena) ez dira falta. Ezbairik gabe, Graffin-ek eginiko disko intimistena dugu American Lesion hau.


Disko biluztu honekin, eta egungo produkzio teknika malgusetatik eskapu eginenez, sinplizitatez lan boro-bila egiteko aukera dagoela frogatzen da. Gitarra, piano

eta ahots soil batek ematen dituzten aukerak agerian gelditzen dira.

Kanturik aipatzekotan "Opinion", "Predicament", "Maybe She Will", "Cease" eta "Back to Earth"-ek maila itzela lortzen dute, guztiak ere melodiarren eta Graffin-en ahotsaren argumentu eta protagonismo berezitik.

Letretara begirada bat botaz gero, EEUU-ko Cornell unibertsitatean irakasle asoziatu moduan lan egiten duen abeslari honek, akademiatik eta eguneroko bizitzatik lortzen den heldutasuna ematen dio diskoari.

Berak azaldu izan duenez, Bad Religion-ekin gizarte arazoak modu infekta-



ile-apaindegia

Maxi

Solarium

ETXEZARRETA, 9
TEL: 943 86 10 21



MENDI - ONDO C.B.
ELEKTRIZITATEA

Urola Plaza, 21
Tel. 943860074 - 943861569



METRO
taberna

ogitartekoak
pintxoak

Upela plaza, 7
tel: 943 862620



tu batean kontatzea izaten dute helburu, jendea pentsatzera eraman nahian (punk-a ez al da probokatzea?). Disko honetan, berriz, sentimendu pertsonaletara nabarmen jotzen da, eta horren eredu da disko guztian mantentzen den ildo estilistikoa.



"Opinion" kantuan esaterako zera dio:

"Momma never told me about the right way to love
And daddy never showed me what we're supposed to made of
So don't be to forthright about what you think I should be
And I willingly accept your low opinion of me"

(Greg Graffin)

Gurera ekarriaz (barka akatsak!)

"Amak sekula ez zidan maitatzeko modu egokia azaldu
Eta aitak ez zidan zer egin behar zen irakatsi
Beraz, ez izan oso zorrotza nik zuretzat zer beharko nukeen pentsatzen
Eta nik modu onean onartuko dut zuk nigan duzun iritzi xumea"

Bukatzeko, diskoak Graffin-en seme Ella eta Graham-entzat du oroimen berezia



Baselari Auzolagia, 15 Tel. 943 14 34 84 ZUMAJA



Mendaro marinela, 1 Tel. 943 861117
943 143346
Juan Belmonte, 15 Faxe. 943 861330



Juan Belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57

GIZARTEKINTZA zentru soziala

KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00

• denontzat irekia



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zerbitzuarako departamendu

ALTZARIAK
OSTOLAZA
ARROZTEGIA



Mota guztietako
altzariak eta
arroztegi lanak

Julio Beobide, 1
TEL: 943 861325

Guda zibileko isladak

ELEBERRIAK IDAZ-
TEARI utzia dion ema-
kume idazle batek
(Ariadna Gilek) Guda
Zibilaren azken egune-
tan gertaturiko istorio
erreal eta korapilotsu
bati buruzko azterketa
dakar eskuartean. Rafael
Sanchez Mazas, idazlea
eta falangista, beste
berrogeita hamar preso-
rekin batera fusilatzeraz
zihozela, euripean ihes
egin eta ezkutatu egin
zen. Dirudienez, bere
bilaketan ibilitako sol-
dadu batek aurkitu
omen zuen, baina ihes
egiten utzi zion. Miste-
rio-kutsua duten pertso-
naiez osaturiko istorio
nahasi hau argitzen
saiatuko da idazlea, eta
lan honek bere burua argitzen lagunduko dio.

Aurrez La Buena Vida (1996) eta Obra Maestra (2000)
pelikulak zuzendu eta beste hainbatetan gidoigile izen
den Truebak Javier Cercas idazle kataluniarraren elebe-
rria hartu du oinarritzat drama sendo hau aurrera erama-
teko. Sari bezala, Espainiako zinemaren ordezkaria izango
da Oscarretan.

Aipatzekoa da, bereziki, zati dokumentalean parte har-
tzen duten aitona-amonen lana, nola antzezten dute
euren burua.

**Soldados de
Salamina**
(2002, Espainia)

Zuzendaria:
David Trueba

Aktoreak:
Ramon Fontseré,
Ariadna Gil, María Botto,
Diego Luna, Joan
Dalmau

Urtarrilak 15,
osteguna, 22:15ean
Aita Mari zinean



- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneko menua
- Jangela klimatizatua

Juaristi
JATETXEA

Basadi auzategia, 10 Tel. 943 861853

Zumaia Hotela




Alai Auzategia
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
TEL: 943 14 34 41
FAXA: 943 86 07 64



Hirugarren munduko bizimodu gordina

WINTERBOTTOM-EN bi film botata ditugu zine forum saio hauetan, I want you (1998) eta Wonderland (1999). Hanka sartzeko beldur handirik gabe, esan dezakegu zinemagile ingeles hau munduko emankorrenetako bat dela, 15 urtetan 17 film egin baititu eta azken hiru urte hauetan 10 hilabetetik behin. Winterbottom XX. mende amaierako eta XXI. mendeko kronista dugu. Estilo eta gai erabat desberdinenak erabiltzeak askatasun osoa ematen dio nahi duena egiteko, teknika berriak erabiltziz produktu merkeak, baina onak, ateratzen dituelako.

Oraingo honetan Pakistango eremuetan errefuxiatuta dauden afganiar bikote baten odisea kontatuko digu. Pakistanetik, Turkiatik barrena, Londres dute helburu. Lur amestua, paradisua, euren miseriari aterako dituen hiria. Zinemagileak kamera bizkarrean hartu eta aktorerik gabe, dokumental estiloz, iheslariak egiten duten bide bera egin zuen, mendebaldeko kontura gaitezen zer egoeratan bizi diren eta zenbat jasan behar izaten duten. Film ederra, egia, hirugarren munduko bizimodu txiro eta ankerra begi aurrean jarzen diguna. Horregatik jaso du lehenbiziko saria aurten Berlinen.




In this world (Britainia Handia, 2003) (JBA)

Zuzendaria: Michael
Winterbottom

Aktoreak: Jamal Udin
Torab, Enayatullah,
Imram Paracha,
Hidayatullah, Jama

Urtarrilak 29,
osteguna, 22:15ean
Aita Mari zinean



LASER BIDEZKO DEPILAZIOAN ESPEZIALISTAK



Gorputzeko edozein ataleko ileak kentzeko sistema berriak aurkezten ditu.

- Argiaren bitartez egindako depilazioa
- Luz pulsada (fotodepilazioa)
- Laser ND-YAG (40J.)

Bien arteko konbinaketarekin tratamenduetan azkartasun eta eraginkortasun handiagoa lortzen da.

BANAKAKO AURREKONTUAK

Bonifacio Etxegarai plazakoa z/g. Tel: 943 861 322



Arrain eta
mariskoak

Barazkiak eta
aurrez prestatutako
jakiak

Zuloaga plaza, 1
Tel. 943862309

URTARRILA

- 15, osteguna 22:15etan zine
forum saioa "Soldados de
Salamina"
- 17, larunbata 22:00etan
"Karidadeko Benta" taldearen
kontzertua
- 18, igandea 17:00etan haur
zinema "Doraemon eta Maien
inperioa"
- 22, osteguna 17:30ean Gorringo
taldearen ipuin kontaketa
"Zapatak"
- 25, igandea 12:00etan Aita
Marin haur antzerkia
"Munchausen.."
- 29, osteguna 22:15etan zine
forum saioa "In this world"
- 30, ostirala 22:00etan
antzerkia "Sonata segundu
batean eta piku"



URTARRILAK 15 Soldados de Salamina
URTARRILAK 29 In this world
OTSAILAK 12 Open Range
OTSAILAK 26 Ararat
MARTXOAK 11 Veronica Guerin
MARTXOAK 25 La flor del mal

AITA MARI ZINEAN

Citroën C2 berria



ZUMAIA MOTOR

Santixo Auzoa 22 Tel/faxa 943 143 143



Alai auzategia, 12 Tel: 943 86 02 58 ZUMAIA

Itzurun zuhaitz bidea, 1 Tel: 943 86 24 30 ZUMAIA



- Txarkuteria bikaina
- Inguruko baserrietako haragirik onena

• Geuk aurrez prestatutako jaki goxoak